



2.7 FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure negozio ereduak ondo funtziona dezan hainbat baliabide aplikatu behar ditugu.

Hainbat baliabide mota bereiz ditzazkegu, baliabide fisikoak, baliabide intelektualak giza baliabideak eta finantza baliabideak. Hauetatik garrantzitsuena giza baliabideak direla iruditzen zaigu gure enpresa arrakastatsua izaten lagunduko digulako, aurrerago aipatuko dugun bezala.

Baliabide fisikoetan oinarrituta, gure enpresak behar izango duen lehendabiziko gauza garrantzitsuena baserri bat izango da. Horrez gain hainbat ohe, mahai, ahulki, eta abar behar izango ditugu udalekua martxan jartzeko. Baliabide intelektualen arloan guri txiki txikitatik erakutsi digute baratzean lan egiten eta ondoko baratzetako jebeek ere lagunduko digute pixka bat ezagutza horiek transmititzen; gainera, gazteriak eramango dugu udalekua, beraz imaginazioa garatzeko hainbat teknika ditugu bai ordenagailu bidez, azkenean gure egunerokotasunean erabiltzen dugun zerbiat da, baina asko kanpoan izango da larrean eta baratzean.

Orain baliabiderik garrantzitsueenean sartuko gara, giza baliabideak. Giza baliabideetan kontuan izango dugun gauza oso garrantzitsua talde antolakuntza izango da, eta honen funtzionamendua; izan ere, kanpamenduaren funtzionamendu orokorra gainbegiratzeaz arduratzen diren pertsonak dira. Gure ardura jarduera guztiak logistika eta pertsonal guztiak kanpamenduaren helburuekin lerrotatuta daudela ziurtatzea da, gainera zerbaiten falta edo beharra sumatzen bada guregana joan behar lirateke. Gure kontu geratuko da marketina; kontu korrontea; garraioa, argia, alokairua eta horrelako ordainketa desberdinak. Horrez gain gure asmoa monitoreak gu geu izatea izango zen, hala ere, udalekua baserri munduan

kokatua dagoenez eta gauz arriskutsurik egin ez dugula ikusita profesionalki garatzea adibidez kirol munduan edo beste arlo desberdinetan oraingoz baztertuta utziko dugu. Hori bai, nahiz eta herrian medikua egon eta jakinaren gainean egon baserriko langile guztiek egin beharko ditugu lehen maiako hainbat sorospen kurtso bada ez bada ere.

Azkenik finantza baliabideak geratuko zitzaizkigun, inskripzioak eta diru-sarreraren kontuan artuko ditugu, ahalaere lehen aipatua geratu den bezala gure asmoa eusko jaurlaritzari eskeintzea gure proiektua da, beraz gero udalekuen diru kopuru guztia ez genuke guk administratuko, halaber kontuan izango genuke ikastolei edo ta beste talde handientzat



kuota desberdinak ordaintzea. Diru laguntzak bilatzea ere lan bezala artuko genuke asko daudela ikusi dugu eta. Bestalde, inbertsio propioa ere eredu izango dugu, guk baserria alokatu edo erosiko dugu, hori ere hornitzaileekin negoziatuko dugu.